

✓ **IKASLEEN FORMAKUNTZA INTEGRALA**

Txingudi Ikastola osatzen dugun hezkuntza komunitatearen helburu nagusia neska-mutilek bere osotasunean bilakatzeko behar dituzten gaitasunak, jarrerak eta baloreak garatzen laguntzea da. Horretarako, honako esparruak lantzen ditugu:

ARLO SOZIOAFEKTIBOAn: Segurtasun sentimendua sustatu, komunikazioa bultzatu, autonomia, erantzukizuna eta partaidetza indartu, errespetuzko elkarbizitza bultzatu eta gizarteratze egokia sustatu.

PRESTAKUNTZA AKADEMIKOAn: Ezagutza eta adimen gaitasunak garatzen lagundu. Ikasteko motibazioa sortu eta adimen lana positiboki baloratzen lagundu. Lan diziplinan ohitu eta ikas teknketan trebatu. Adinari dagokion kultura eta jakintza maila lortu, Ikastolako Proiektu Curricularraren arabera.